

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gautegiz-Arteagako Udala**

Kultur eta kirol esparruko Gautegiz Arteagako irabazi-asmorik gabeko udal-erakundeei zuzendutako diru-laguntzen 2020. urteko deialdia egiteko Alkateak ekainaren 19an hartutako 77/2020 erabakiaren laburpena. BDNS (Identif.): 511835.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluekin bat etorrira, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Testu osoa ikusi nahi izanez gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionala kontsulta daiteke: <http://www.pap.minhap.gov.es/bdnstrans/index>.

1. artikulua. — Xedea

Ordenantza honen xedea Gautegiz Arteagako Udalerriko irabazi-asmorik gabeko Erakundeek burutzen dituzten gizarte, kultur eta kirol esparruko jarduerak sustatzea eta bultzatzea da.

Helburu hori betetzea baldintzatuta egongo da, aurrekontu-kreditu nahikoa egon beharko da eta.

Diru-laguntzat joko da Udalak ematen duen eta ekonomikoki baliozta daitekeen edozein laguntza, zuzena zein zeharkakoa, Udalbatzako Alkateak ematen badu Ordenantza honetan zehaztutako baldintzetan.

2. artikulua. — Diru-laguntzaren helburua

Udal eskuduntzapeko jardueretan, berorien garapena osatuz nahiz hutsuneak bete-tez parte hartzeagatik, irabazi-asmorik gabeko ekimen publiko nahiz pribatuei laguntza emateko dira ordenantza honetako diru-laguntzak. Betiere, diruz lagundutako jarduerak ekitaldi berean burutu badira.

3. artikulua. — Diru-laguntza motak

Araudi erregulatzailer hau diru-laguntza mota hauei dagokie:

- Diru-laguntza orokor arrunta: elkartearen urteko ohiko jardueretarako laguntzak.
- Diru-laguntza berezia: elkartearen ohiko jardunaren barruan ez dauden aldizkako ekitaldietarako laguntzak.

Jarduera berbera ezin da bi diru-laguntzetarako aurkeztu.

4. artikulua. — Onuradunak

Ordenantza honek araututako diru-laguntzen onuradunak izan ahalko dira gizarte, kultura eta kirol esparruko irabazi-asmorik gabeko elkarteak, baldin eta egoitza Udalerri honetan badute, legez eratu badira eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- Helbide soziala Gautegiz Arteagan izatea.
- Irabazi-asmorik gabe eratuta egotea.
- Eusko Jaurilaritzaren eta elkarte erregistroan eta udal honen elkarten erregistroan izena emanda egotea.
- Erakundeak indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-zorrrak kitatuta izatea (Foru-ogasunarekin edo dagokionarekin) eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioekin egunean egotea.

Berariaz jasotzen da Kanala Auzoan dauden eta bertan jarduten duten Erakundeak salbuetsita daudela, horien egoitza soziala Sukarrietan egon daiteke eta, betiere, erakundearen Jarduera Gautegiz Arteagako biztanleei ere zuzenduta badaude eta pertsona horiek erakundeko kide izateko eskubidea badute.

**5. artikulua. — Diruz lagunduko den gehienezko zenbatekoa guztira**

Deialdi honetarako kreditua 10.000 eurokoa da, 2020rako udal aurrekontuko 334.481.02 aurrekontu partidan dagoena.

Elkarte bakoitzarentzat diruz laguntzeko gehienezko zenbatekoak ezingo du izan aurrekontu araztuaren %50 baino gehiagokoa, 1.800 euroko mugarekin.

Urtean erakunde bakoitzak gehienez 500 euroko diru-laguntza berezia jaso dezake.

Ordenantza honen helburuetarako, jarduera bakoitzarekin lortutako diru-sarrerek ezingo dute gainditu antolatutako jardueraren gastuen zenbatekoa.

Ordenantza honetan ezarritako ondorioetarako, oro har, Kultura eta Euskara Batzordeak kasu bakoitzean hartzen duen erabakiaren kalterik gabe, diru-laguntza honek ez du balio tokiko jatetxeetako edari zein janariak sortutako gastuetarako, ezta erakundeek langileak kontratatzeagatik izandako gastuetarako ere.

6. artikulua. — Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Gauegiz Arteagako Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin.

Edonola ere, diruz lagundutako programa edo jarduera burutzeko eskuratutako finantzaketa guztira ezingo da izan haren kostua baino handiagoa.

Diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek, hala balegokie, udalari jakinarazi beharko diote eskabidea egin ondoren xede berbererako diru-laguntzak edo laguntzak jasotzen badituzte.

7. artikulua. — Eskaera aurkezteko epea eta lekua

Eskabideak (I Eranskinean) jaso den eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko dira (eredu hori <http://www.gauegizarteaga.com> webean eskuratu daiteke), legezko ordezkariak sinatuta, eta hurrengo zenbakian eskatutako agiriekin batera. Eskabideak Gauegiz Arteagako Udalean aurkeztu ahal izango dira (Herriko Enparantza, 1, astelehene-tik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara), edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikulua zehazten duen moduan aurkeztu ahal izango dira.

Eskabideak eta dokumentazio osagarria aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Diru-laguntza bereziak urtean zehar aurkeztu ahalko dira, jarduera egin baino 60 egun natural lehenago.

Gauegiz Arteagan, 2020ko ekainaren 19an. — Alkatea, Juan Felix Naberan Ozamiz